

+ Anaitasuna

VII URTEA - N.º 72

Depósito Legal SS. 1.092—1959

Suplemento de la Hoja
ANAITASUNA de Guipúzcoa

Urria (10) 1960

Komunismoaren kokoa

Munduaren manda batetik bestera, omen laztanago, or ikaragarriago, edonon altzetan da Eleizearen aurrean komunismoaren mamua.

Vietnam-en, katoliko militanten bat ilda agertu da, iparraldeko komunisten armakaz asesinaturik. Ceylan-en, Askatasunaren Partidukoak eleziñoak irabazi ditue, ezker ezkerrekoakaz alkartu direalako; eta katolikoak artekadu dabilta, alkartasun orretatik ondorengo txarren bat etorriko ez ete jaken. Italia-n, kristiñau demokratik ezkerretarantz atea apurtxu bat pozik zabalduko leukie, komunismoaren bildur ez balira.

Baiña Eleizea edonon larri badago. Cuba-n eta Congo-n dago larien, orainarte jazo direan eta aurrerantzean jazo leitekezan gauzen bildurrez.

Azkenean, ezin geiago soportaturik, Cuba-ko obispoak, emon dabe euren eritxia: komunismoak gero ta influentzia geiago dauko Jose Marti-ren aberrian.

Orrenbeste ez dabe esan oraindiño Congo-ko obispoak; baiña Leopoldville-ko Monseñore Malula-ren kezkek eta Katanga-ko katoliko printzipalen errenkurak argiro adierazoten deuskue, ango kristiñauak txarrena itzaroten dabela. Eta kristiñauentzako txar-

rena, expedientziak erakusten deuskun lez, komunismoa izaten da. Danok dakigu zegaitik: komunismoak indarraren bidez praktikan ipiñi gura ditu materialismo atearen teoriak, eta ori ezin leike egin, Eleizea zapaldu barik.

Cuba-ko katolikoeri, erreazionarioak direala akusetan deusie, eta Norteamerika-ko kapitalismoaren alde dagozala. Congo-n eta Katanga-n, traidoretzat artu ditue, eta extranjeruen interesen jagoletzat.

Cuba-n, Congo-n eta edonon, olako akusaziñoak —eta antzekoak— ez dira broman artzekoak. Euren kontra benetako ezer egiten ez bada, egiazkoak direala uste izango dau erriak. Ez da naikoa ixilik egotea, eta txarto komprenietan gaituela esatea.

Katolikoak ondo finkatu bear dogu naziñoaren aurrean gure egokerea, eta obrakaz erakutsi, edozein erreboluziñoren kontrarioak ez gareala, eta justiziazko progresuaren alde gagozala. Ondo esan dabe Cuba-ko obispoak. Orain, kristiñaueri toketan jaku, Cuba-n eta edonon, geure egintzakaz alegin egitea, obispoen verba ederrak entzungarriak eta sinisgarriak izan daitezcan.

Berriatua

C O N G O

Zelan aurkituten dira mixiñoak?

Congok ba ei dauz 6.833 mixiñolari edo. Onetatik 20 bat illak izan dira azkeneko erreboluziño onetan. Ango ondo-ozak eraginda bertatik urten daben mixiñolariak 100 ingeru izango ei dira. Baiña azkenengo periodikoak esaten dabenez 33 joan ei dira barrero euren mixiño lekuetara. Gaur arte ez dau Eleizak miñ apartekorik sufridu Congo lurralde aretan; baiña biar edo etzirako baleiteke zer edo zer txarra ekartea gaurko ja-soera oneek.

Sosiedade-bizitza, aministraziñoa ta artu-emonetako arazoak zietz nastauta aurkitzen dira. Bizimodu gatxa dago Congo'n. Oingoan gauza aundirik ezin leikie egin abadeak bere eginbearretan. Dempora gitxi barru, Congo'ko Eleizak arazo itzelak izango dauz barru-barruan: Eskolak, maixuak eta euren salarioak, geixo-etxeak, Azion Katolika ta beste apostoladu moduak lengo moduan ipiñiteko... Zer ikusi aundia izan ete dabe angu tiroteak ta zaratak gaztedian...? Beljikaren kontrako periodikoak gaur lez jarraituten badabe, ez ete dabe abadeak euren influentzi ta izen ona galduko? Luluabourg, Stanleyville, Leopoldville, Mataldi ta beste lurralde askotan gizonak bier barik aurkituten dira. Eta saseiko-maixu sistriñak ez ete dabe itxura onetan dagon biergiña Eleizaren kontra mogiduko...? Bildur izan. Auxe izango litzake Eleizarentzat larrialdirik gogorrena.

Eskolak Estaduarentzat

Gaurko arazorik inportanteena eskolak dira. "Gazet van Antwerpen" izeneko periodikoan auxe eskribidu dau batek: Estaduak berantzat gura dituala institutoak; Estadu ta Eleizaren arteko artu-emonak zietz banatutea billatuko danala eta eskoletan ez dala

erlejiñorik, ez katolikorik ez bestelakorik, irakatsiko". Esaten dabenez Estaduak berantzat gura ei dau "Lovanium" izeneko Unibersidadea eta berton Bruselas, Suiza, Canada ta Frantziko maixuak ipiñi.

Eta Katanga'n zer?

Komunismoari aurrez-aurre gogor egiteko erarik onena askatasuna lortutea dala den txoe Katangakoeri. Baiña Katanga'ko 450.000 katolikoek ez dabe ikusten gauza garbink mobimentu onetan. Bildur dira onekin bakarrik lortuko ete daben gura dabena. Katanga ezta konponduten Congo'ko beste Estaduekaz, eta onek atzeratu eragiten dante katangatarri askatasun billa asiteko. Bata-sun ezak komunismoari bidea prepartan dautso. Ganera badira Katanga'n bertan bixil eta azpitik marxismoa ta antzeko ar txarrak eraiten diñarduenak.

Eleiza ez dago Katanga'ko gobernuagat nastauta. Orain dala gitxi, delegaziño bat etorri da Katanga'tik Aita Santuagana.. Baiña Aita Santuak ez dauz artu; Vatikano'ko abade-enpleadu bat gaz berba egin bear izan dabe euren arazoen gañean. Ikustaldi onegaitik M. Kambolak, Katanga'ko delegaziñoaren buru zanak, auxe esan dau: "Gure gure nagusiak eta gure erriak konsegidu gura doguna Aita Santu ta katoliko danen lurguntza da; orretara errezago menperatu izango doguzalako gure arerio orreek".

Roma:

"Zulu" Afrikako lurralde bateko gizonak iri esaten deutsegu. Periodikoak diñoenez zuluen berbaikerea eleizkizunetan erabiltzeko baimena emon dau Erromak. Berbaikera orrexetan emongo dabez sakramentuak, bedeinkaziñoak eta eleizkizunetan berbaikera berori ibilliko dabe. Baimen diña izango ei dabe Afrikako beste erriak izuk be.

Estadu-Alkartuak

USTEKABEKO ERLIJIO PROBLEMA- REN SORRERA

Uda erdi aldean, Billy Graham protestante ebanjelariak, Suiza'ko Montreux'en esan eban, erlijio-arazoak 1928'garrenean baiña zerikusitu gitziago izango ebala Estadu-Alkartuetako aurtengo elekziñoetan. Baiña egia esateko, gura nai gura ez, problemarik aundienetakoa izango dala.

KATOLIKUEN KONTRAKO ORRIAK

Eta Billy Graham'en deklaraziñoak orain-
txe egiztatu dira, jende geiena erlijioso-problema aztuta egozalakoan egoanean. Eta gertaerak Billy Graham'eri emon dautse errezoia: Erlijio problema, problema aundienetakoa izango da aurtengo elekziñoetan.

Agustuaren erdi alderantza asi ziran lenengo surru-murruak. Egoaldeko Karolina Estaduan 60 bat protestante pastore, artzain, Greenville urian batu eta katoliku bateri botorik ez emoteko erabakia artu eben. Virginia'n orixe bera egin dabe beste protestante sermolari batzuk. Eta beste Estadu askotan be agertu dira katolikuen kontrako orriak. Propaganda orri onetako batek "Abraham Lincoln'en deadarra" izena daroa; eta diño, Amerikako presidente au il ebenen artean geienak katolikuak izan zirala. Beste orri batek "Katoliku bat presidente" izena dauko. Orri onetan presidentearen seilhua eta Aila Santuaren txapela alkarren ondoan agertzen dira.

Texas'ko protestanteak euren artzain baten sermoia zabaldu dabe. Eundekaz milla orri atara dabez. Sermoiak, beste gauza askoren artean zera diño: katolikotasuna politikako tiranirik aundiena dala; karramarro aundi bat lez mundu guztia eskuetan artu eta gure asabak lortzen ainbat nekatu ziran askatasunaren lege santuen kontra dogiela.

Prensa osoa ikaratu da ustekabean agertu dan erlijioso-problema au dala-ta. Eta ori bai Kennedy eta bai Nixon, biak batean, olako surru-murruen kontra dagozala, ez dabela olako nasterik gura. Agertu

dan mobimendu onen kontra diardue eguneroko eta errebista danak.

PARTIDU DEMOKRATIKOAK ERLIJIO- BATZAR BAT SORTZEN DAU

Propaganda onen ondoan, Kennedy jauna presidente urtengo dauan itxaropenik bai? Jendeak ez daki zer esan. Ara Tennessee Albert Gore'k zer esan daben: "Kennedy'ri bere katolikotasunak aldeak eta kontrak dakartzoz. Egoaldean botoak urritu egingo yakoz apur bat, baiña Ipar aldean, batez be Kalifornia'n, asko irabaziko dau".

Dana dala, demokratikoak, erlijio-problema onen inportantziagaz konturaturik, batzar bat sortu dabe, erlijio-batzar bat, problema onek erabakitzeke, egin leikioezan preguntari erantzuteke. Kennedy'k bere aldetik, protestanteen artean gizon aundia dan M. James W. Winen jauna aukeratu dau erlijio problema onetan lagundu deion.

KATOLIKU EZ DIRANEN BILDURRA

Katoliku ez diranak uste dabe Erromak bere gustora, konbenientzira, erabiltzen dituala katolikuen asmo guztiak; eta bildur dira katoliku diranak areri edo oneri botoa emoten beartuko ete dabezan.

Katolikuek, problema onek ikusita, batez besteak politika, ekonomia ta gizarte arzoetan daukoezan ezherdintasunak, diferentziak erriaren aurrean erakustea erabaki dabe. Ori izango baida onena. Orretarako batzar agiri batzuk egiten ditue; batzar orretan, bakoitzak bere eritziak eta ikusmirak emoten dauz, bakoitzak bere puntuak diskutidu. Olan erriaren burutik prejuizio asko kentzen ditue.

Kennedy presidente urtetan bada, esan geinke bein betiko erabakia dagoala Amerikako erlijio problema au. Gaurrarte ezin ziran protestanteak besterik izan Estadu-Alkartuetako presidenteak.

Zertan geratuko gauza guzti onek. Datoren illean ikusiko.

G. Etxeberria

Eliza Katolikoa ta Gobernuak

Danak dakizuen lez, oraintsurarte Cuba-ko katolikoak Fidel Castro-ren alboan egon dira. Orain barriz, komunismoa sartu dantetik, gauzak asko aldatu dira. Obispoak marxismoaren kontra altu verba agin dabe, eta gobernuak gero ta geiago Eleizeari ataketan asi da.

Eleizearen kontrako lenengo manifestaziñoak

Julioaren (garagarrillaren) 17 ta 18-an, eleizkizun batzuk organizatu zituen Habana-ko katolikoak, Eleiza ixilduaren alde erregututeko.

Mezatatik urtekeran, «Cuba, sí; Rusia, no!» esaten asi zirean, Castro-ren erreboluzionarioak eleiza aurreko plazan «Cuba, sí; Yankuis, no!» aldarrika erantzuten eutsien bitartean. Lenengo egunean, emeretzi katoliko joan zirean kartzelara, eta amabi bigarreanean; egunean bertan, baiña, libre geratu zirean danak.

Andik laster, iru orduko verbaldi bat bota eban Fidel Castro-k telebisiñoan. Orduantxe itz egin eban lenengoz, argi ta garbi, kleroaren kontra: Cuba-ko eleizgizon geienak (700-etik 400 español) faxistak eta fa'angistak zircala; kristiñau faltsoak, ototza baiño, konspiraziñoa egiteko eleizara joiazala, eta konspiraziño ori Washington-ek biztuten ehal.

Agostuaren 7-an, ilaran lenengo domekan, karta kolektivu bat atara eban Obispoak, eta irakurri eragin ebe naziñoak eleiza guztietan.

Obispoen karteak

Pixu andiko dokumentua, Eleizearen historiarako guztiz importantea, Fidelismoaren alderdi onak eta txarrak bertan agertzen dira-ta.

Kartearen asikeran, euren poza erakusten dabe. Obispoak, erreboluziñoak egin dituan gauza onakaitik. Asko alegretan dira,

gobernuak erreforma agrarioa egin dauako, bizia merketu, eskolak eta hospitalak ugaritu, erriarentzako plaiak eta deporte lekuak zabaldu, etxe merkeak egin, esku garbiakaz naziñoaren dirua administratu jokuaren kontra lan egin eta diskriminaziño arraziala baztertu.

Au esanda gero, euren kezkek eta erre-



Aita Ignacio Biain, La Quincena errevistearen direktorea, ta Kardenalaren aurrean.

kurak erakusten asten dira Obispoak. Artekadu dagoz, erreforma agrarioa bear dau moduan egiten ez dalako, eta propietarioen eskubideak sarritan zapaltzen diralako. Arminduta dagoz beste gauza askogaitik, baiña batez-bere komunismoa gero ta geien aberrian sartzen asi dalako. Ez dagoz gobernuaren kontra, naziño komunistakaz arturamon komertzial eta diplomatiko estuak sortu direalako. Baiña guztiz kaxu dagoz.

periodistak, funtzionarioak, sindikatoen zuzendariak eta gobernuko agintari nagusiak komunismoaren alde egiten dituen manifestazioakaitik.

Ezin leike alkar artu —diñoe Obispoak— katolizismoak eta komunismoak, beronen asmoak materialistak eta ateoak direlako, eta moduak gizonaren diñidatearen kontra doazalako.

Eleizea ez da bildurtuten erreforma sozialakaitik, guztiz aundiak eta sakonak izanarren, karidade ta justiziagaz egiten badira. Eleizea humilleu eta beartsuen alde dago beti, eta komunismoaren kontra beti egongo. Cuba-ko erria, katolikoa da; eta ez da sekula-bera komunista izango, engañuz izan ezik, edo naitanaiez obligetan ez badabe. Ez daiala ori permititu Andra Maria Karidadekoak, Cubatarren Zaindari maiteak!

Erreaziño gogorra

Obispoen karteak irakurri zan egunean, okasiño aundiak sortu zirean katolikoek eta milizianoek artean. Habana-ko abade bat arrestatu egin eben eta gerotxuago askatu.

Urrengo egunean, agostuaren 8-an, *Revolución* periodikoak, Castrotarren organuak, «katoliko erreboluzionarioek» izenean verba egin eban, eta esan eban ze, karta ori katoliko falto bazuk Obispoeri idatzi eragin eutziela; katoliko falto orreek euren interes materialak jagotearren ori egin ebela eta euren influentzia aundiagaz Obispoak engañatu zituela; eta zorioneko karta ori entzunda gero, Cuba-ko katolikoak ofendidu egin zireala.

Agostuaren 9-an, Monsiñore Evelio Díaz, Habana-ko administradore apostolikoa, presidentearen sekretarioagana joan zan; eta esan eban, eleiza guztiak zarratuko zituala, eleizgizonak eta eleiztarrak libertade ta segurantzarik eukiten ez baeben.

Urrengo egunean, Oswaldo Dorticós, Errepublikako presidentea, diskursu baten deklaratu eban ze, provokaziño guztiak gorabeera, gobernuak kultu guztiak errespetatuko zituala, eta ez ebala itxiko Eleizea ta Estadua alkarren kontra egotea.

Egun orretan bertan, agostuaren 10'an, verbaldi luze ta gogor bat pronuziatu eban Fidel Castro-k kooperatibetako delegaduen aurrean: «Gure erreboluziñoa —esan eban— ez da egin eleizgizonen kontra, lur propietarioek kontra baiño; eta ori gorabeera, aspaldion, egunecan baiño egunean ugariagoak dira gobernuaren kontrako provokaziñoak eta kalumniak, erreboluziñoa erlegiñoaren eta kristiñau sentimentuaren arerioa baillitzan.

«Or dagoz eleizgizonak, euren eskola privaduakaz. Ez da iñor sartzen euren asuntuetan; eta gobernuak ez deute eragozpenik edo aurpegi txarrik ipinten ezetan. Au badaki gure erriak. Ba-daki, Nortamerika-ko imperialismoak Cuba-ko eleizgizon faxista guztiak erreboluziñoaren kontra jarri dituan. Ba-daki gure erriak, sazerdote onak-bera ba-dagozana, baiña kargu aundi barik bizi direana, besteak diruz eta honores beterik, postu altuetan dagozan birtatean.

«Nik gurako neuke, Obispoak kondena leizala gure erria explotetan dabekompaiñiak eta gure naziñoari egiten jakozan agresio imperialistak...»

Gobernuaren aldeko periodiko guztiak txaloka artu eben Fidel-en diskursua, eta verbarik gogorrenakaz kondetan eben «Erreboluziño ta Aberriaren kontrako konjuraziño kriminala». *La Calle* periodikoak, bere aldetik, dei egiten eutsen «katoliko zintzoeri», bide zuzenetik joateko, eta ezer egin orduko gauzak ondo pentsetako.

Dei orreri erantzunik, «Con la Cruz y la Patria» lematzat daukon «katoliko erreboluzionario» agrupaziño batek, meza bat zelebra eragin eban, Fidel Castro-ren osasunagaitik Jaungoikoari eskerrak emoteko. Zortzi milla batu ei zirean; euren artean Dorticós presidentea bera. Ondo dago jakitea, orregaitiño, agrupaziño orretako katoliko geienak badaezpadakoak direala, euren artean militante banaka batzuk bakarrik dagozala, eta oraiñarte Obispoak ez dabela ezer esan euren kontra.

Konklusioa

Naste-borraste onetan gauza bat ikusten da argiro: aspaldion txarrerantz doazala Cuba-n Eleizaren eta gobernuaren arteko artu-emonak. Ona emen oraintsurengo zer esan dauan Habana-ko frantziskanoen *La Quincena* errevista ospetsuak, oraintsurarte Castrotarra izanikoak: «Fidel Castro-k esan dau, erreboluziño au gente askorentzako burdin gorria baizen bero biurtu dala, eta egia da; guztiz gorri ipiñi da, eta ezin leikio iñok ikutu, eskuak erre barik.» Orregegaitik-edo, erdi ixildu egin da orain errevista ori, eta lengo direktorearen ordezet bat jarri da.

Nire ustez, Cuba-ko gauzak komplikuak dira, eta euren gainean eritxi bat emon orduko, ondo ikusi ta pentsatu bear dira alderdi guztiak. Bitartean, guk, Espaiñiko kristiñauok, otoitz egin deiogun Jaungoikoari Cuba-ko anaien alde.

BATZAR EKUMENIKOA

Estudio batzarrak

Oindiño gitxi dala Italia'ko Tirol'en Milan'go Unibersidade katolikuak estudio batzuk eratu dauz, eta bertan Batzar Ekumenikoaren gaiñean egin dabe berba, eta ez gitxi be oitura dabenez.

Montini arzobispoak olakoak esan eban: Obispoak dabe agintearen noraiñokoa neurtu, Obispo eta erlijiosoen arteko artu-emonak erabaki, prakadunak Elizako gauzetan geiago zelan sartu... eta abar izango dirala Batzarreko temak. «Beste batzar geienak ez legez, —esan eban—, Vaticano'ko bigarren Batzar au Eleizaren bizitzan barealdi eta berotasun sasoi batean batzen da, eta zoezer positibu ta barruko aurrerapenak nai leukez lortu. Ez dira erejiak, zismak edo Eleizaren altzoko dogma-korapilloak, obispoak Aita Santuaren inguruan batzen dituana. Batasuna gustatzeko da batez be, eta olantxe, bere indarrak bizkorluagotzeko eta barruan sakonagotzeko; berba bakarrean: santuagotzeko.

Jakiña, Batzarrak ardura apartekoa ipiñiko dau Erromako Eleizatik apurtuak dagozan kristiñauen problematan. Kristiñau onek, kristiñau dira izan, baiña ez dira katoliku, zismatikuak deritxaguzanak baiño. Gaiñera gaurko munduan zelan bizi ta modidu be erabaki bearko dau, gaurko bizitzako buruaste ta modernukerieri kontra egiteko.

Oraiñarteko Batzarretan ez genduan jakiten zer egiten zan. Oraingoan ez da olan izango. Monseñor Pericle Felici'k esan dauenez periodistentzako «buro» edo batzar-triki bat ezarriko da beste Ekumenikoaren ondoan. Buro onetan periodistak jakingo dabez Batzarreko hierretzaz jakin bear dabezanak. Olan jakingo dogu mundu guztian zelan eta zertan dabizen Batzar-bideak. Felici dalako onen ustean Urri-ren batean asiko da Batzarra, eta ez dau iraungo bi illabete baiño. Segurueua 1962'an izango ei da, baiña ez dakigu ezer ziurrik.

Guzzetti abadeak diñonez Vaticano'ko II Batzar onen berebiziko importantzia dauko Eleiza katolikoaren etika edo morala egokitzeko, gaurkotuteko, batez be familiari, eko-

nomiari eta gizarte edo soziedadeari dabilkiozan arazoetan.

Propaganda Fide'ko Vodopivec'ek batzarriz, beste barri pozgarri au emon deuskaspaldian katolikuok eta zismatikuak geroz kazan zerikusi edo artu-emon otzak asit berotu dirala azken-sasoi onetan. Teologjoguzan desberdintasunen gaiñetik adiskidatjorrak legez emoten dautsagu batakatzari eskua, kristianismuarren lenengo urteetan bat bakarrik giñala gogoratuaz. «Au izan leike gaur alkarrengandik urrun bizi garenok laister anai maitetsu lez besarkatzen garen itxaropenik ederrena».

Anglikanuak

Anglikanuak Inghlaterra'ko protestante deritxoegu. Onek Eleiza katolikuaren sinietetik oso urrean dagoz. Orain dala giñat eskribidu dabena karta baten au irakurri giñat ke pozez beterik: «Gertutu zaitezte lenbaiten Aita Santua barriaren biotz onari erantzun bero bat emoteko».

Aita Santua erratu-eziña dala diñon Eleiza katolikuaren eretxia kritikatu ostean beste au goian esaten dogun karta orretan.

«Joan Aita Santuak Gogo barri espeziat bat egertzen dau Erroma'ko Eleiza'tik apurtuak, urrunduak, dagozan kristauakanago. E leike pentsau Erroma'ko Eleizeagaz bat egiterik, baiña ez geunke au izan leikena dala begien argitatik illunpera jausten itxi beate Inghlaterra'n bertan be erromatar izotza ur leike adiskideak legez portetan bada, eta anglikanuak Aita Santu barriaren biotz s murrari ondo erantzungo leuskioe laister».


Eleizen Kontseju Nagusiak diñoana

Eskoziako St. Andrews'en ortodoxo eta protestanteak izan eben batzar batean. Vaticano'ko II Batzarra dala-ta, onelako berba ederrak esan ebezan:

«Eleizen Kontseju Nagusiak Erromako Eleizeagaz artu-emonetan asi aal izate gertaera aundi bat lez ospatzen dau; geroz leuke berak (Kontseju onek) teologoen arteko eztabaidak ez ditezela danak ofizialak izan, ofizialak ez direanak be izan daitezela eztabaida eta artu-emon onexek izaten be dira alkarren arteko gauzak argitzen dabilzanak.»

Jose Azurmendi

MUNDUAN ZEAR



PARIS'KO FERI NAGOSIA

Neure aurretikoak baserritarrak izan baditut be, nik beintzat ez dot iñoiz atxur bat eskuan artu. Baña benetan be ikusgarria egoala esaten eusten eta ara joan nintzan, domeka arratzaldea aprobetxatuz.

Sartukeran konturatu nitzaneaz, irurogeitabederatzigarren feria genduan bera Paris'en urterik urtera preparentan diranetatik. Aurten Aprillaren lenengo egunetik zazpiraiño zendun. Bertan ikusi eikeana: Baserri-laneko Billera nagosia Baserri-makinien Saloi internazionala, Egaztiaren Saloi internazionala, Txakur-erakuste internazionala. Lenengo arloan Frantziko departamentuak ez-ezik Belgika, Holanda, Alemania eta Italia egozan atonduak, bakotxaren apartekotasunak agertzeko. Makiñe-gauzetan 16 naziño ziran euren aurrerapenen barri Paris'en emon nai izan ebenak.

Madrid'ko feri-lekuak irurogetamar mila metro kuadru ei ebazan, «Basarrik» iñoanez. Paris'ko feriko makiñeri-lekuak bakarrik 133.000 metro kuadru eukotzuzan. Orain atara egizuz kontuak feri osoak zenbat izango ebazan eta nik zelan bixitauko noan arratzalde batean.

Makiña-lekura sartu nintxatzun lenengo. Baserritar belga batzun ondotik ibilli nintzan zer iñoen entzun naiean. Aurten eundamar muestra barri agiri ei ziran Baserriko bier guztiak mekanizauta ikusten zenduzan an: traktoreak ogetamarren bat pieza diferente inkeu eta kendu leitekioezanak, beste orrenbeste bier egin al izateko, kokoak ilteko pulberizadore automatikoak, ligor dagonean soloak bustitzeko makiñak, bedarra eta frutuak beingoan siketuteko, beste batek motorkultor esaten eutsen eta etzan ain aundia be... Nik eztaikit. Berrogei mila peseta balio ebazan beintzat.

Arlo txikien jabe diranentzat be makiña txiki asko ikusten zan. Ondoa neukan agure batek onela iñoan: Orain amar urte olako makiña batzuk izan bagenduz, solano

bier egiten kantzau eta gogoitutako amaika gazte, baserrian gelditu izango ziran.


Gero, animalien lekuari bisitatxo bat egitera joan nintxatzun: Ogei errazako sei-reun ardi, emeretzi errazako bostean beburu, ia berreun zaldi amabost errazatakoak, berreun txarri iru errazatakoak... Zenbat Holanda ta Alpeko bei eder, zaldi anglo-arabeak, Dinamarka-klaseko txarri guri! Eta a musika atsegingarri ta gozoa entzuten zana! Eta txakur-esposiziñoeko errazak kontetan asi ezker... A edertasuna!

Ni, ostera, atsegintsuago ibilli nintxatzun janari eta edariak erakutsi eta eskeintzen ziran lekuetan. Bost mila produkto klase baiño geiago ba ei ziran! Eta probau!

Apurtxo bat bildur izan ei ziran feria atondu ebenak, aurtengoan feri-ikusleak lenengokoen ondoan asko be gitxiago izango ziranentz. Bai, ba, azkeneko onetan baserritarrak ibilli dabezan burrundadakaz... Baña entzun dotanez iñoiz baiño gauza geiago ekarri ei da ferira ta jente geiagok bixitau be. Ni izan nintzan domekan be larogetamar mila ba ei giñan.

Ia batera Paris'en beste esposiziño eder bat be izan dogu: etzeko tresnaena. Neure ama ikusi gura izango neban! Zer ez egoan bertan! Orko moja batzukaz ibilli giñan. Gauza jakingarri batzuk (nik monjaeri gusetan jakena ipiñiko deutsuet): erropak uragaz igurtzi barik ederto plantzetan dabezan plantxea, zapatak eta erropak astonzeko zepillu elektrikua, mahonesak eta nik eztaikit beste zenbat salsa ta gauza beingoan egiten dituan aparatua, uleak legortutekoa; eskaratzeko «robot» deitzen eutzena, patatari ta azala kendu, ebai, naranjari eta ura kendu eta beste gauza askotarako makiña txiki bat, ollaskoak erretekoa... eta nik dakit ba geiago.

An be bai izan zala jentea! Milloigarrrena zanari —andrazko bat— erropa garbitzeko makiña bat emon eutzen.



«Stella Maris»

Eta itxasgizona geurea, kristiñana ete dogu gero...?

Ara emen Vigo'ko batzar aundiak arazo onen gañean esan deuskuna. Batzar onetan munduko gizonik-eta ospetsuenak batu ziran. Eta ara zer diñoskuen: "Itxasgizona Eleizeagandik aldenduta bizi da. Pobre eta eleizaren laguntasun gabe aurkituten da. Sakramentuak baztertu egin dauz".

Au dala ta, enkuesta bat atonduten asi dira. Baña gitxi gora-bera oraintxetik esan geinke enkuesta orrek zer barri mingarri ekarriko dauskun: milloi bat gizon Eleizeagaz aztuta, erdi pagano biurtuta.

Eta zelan konpondu gauza ain mingarria? Auxe Eleizearen zer-egin barria. Len fabriketako gizonekaz gertatu iakona ez ete da barrero itxasgizonekaz gertatuko? Berandutxo ez ete da elduko zeregin orretara be? Bat baño geiagon itaun samiña dozu auxe. Dana dala, asi dira abade eta fraille asko ardurea artzen eta lan egiten. Ara or "Stella Maris-klub" asko zelan agertu diran. "Stella Maris-klub" oneek portuetan dagoz, itxasoko gizoneri laguntasun pozgarria eskeintzeko prest. Portu batera eldukeran, itxastar askok ez dabe jakiten nora jo, ez dabe iñor be ezagututen, ez dakie nora joan. Eta sarritan lekurik nabarmenenera sartuten dira, euren osasun, arima ta fedea betiko azpiratuaz.

Auxe da "Stella Maris-klub" oneen zeregin ederra. "Stella Maris" —Zeruko Izarra— itxasgizonen etxea izango da. Itxasoko zereginetan nekatuta datozanean bertan aurkituko dabe euren itxastar familia, euren

tabernatxoa, euren olgeta-lekua, periodikoko liburu onak... Baita be antxe aurkituko dabe euren familiaro barriak, itxasaurrerape guztien barri, eta batez be Eleizamaren esker beroa, sazerdotearen laguntasun osasungarria.

Benetan txalogarria etxe oneen lan ederra. Eta milla bider txalogarriak etxe oneen fundadore eta buru diran abade-fraille maitegarriak. Betoz ordu onean gure portuetan "Stella Maris-klub" asko eta onak.

Estranjerman asko zabalduta dagoz klube oneek, baiña ez bear dan bestean. Españerok ez gabiltz aurrerengo mallan. Alan dago guztiz be egia garbi agertu gura badoguz ezin ixildu azkeneko urteetan Españaiko portu batzuetan egin diran aurrerapenak. Aror Bilbao, Vigo, El Musel, Bartzelona...

Orretzaz gañera, beste leku askotan "Stella Maris-klub" egiteko asmo bizian dabilte. Bermio, Ondarru, Pasajes, eta al danik porturik geienetan eta egokienetan. Bete-betean sartuta dago arazo onetan gure Aita Imanol Berriatua. Jainko onak emon beiozala inda eta grazia, eta biotz oneko guztiak beren laguntasuna.

A. Zubizarreta

«ANAITASUNA» DE VIZCAYA

DIRECTOR:

P. Jon Kepa Guarrochena

PP. Franciscanos, Iralabarri, Bilbao

ADMINISTRADOR:

P. Teófilo Arzallus

PP. Franciscanos, Zarauz, Guipúzcoa

Irakurri Bizkaiko ANAITASUNA
Eskatu Zarautzera

Urte beteko suskiziñoa: 12 peseta